



GIEBren LPA

LANERAKO PROZEDURA ARAUTUA

GIEB

Gizakiekin egindako Ikerketetarako Etika Batzordea

Leioa, 2014ko maiatzaren 28a

LANERAKO PROZEDURA ARAUTUA.....	1
1 DEFINIZIOA	3
2 HELBURU OROKORRAK	3
3 EGINKIZUNAK.....	3
3.1 IKERKETA ETA IRAKASKUNTZA JARDUERAK EBALUATZEA.....	3
3.2 EBALUAZIOAREN IRIZPENA EMATEA.....	4
3.3 IKERKETA ETA IRAKASKUNTZA JARDUEREN JARRAIPENA EGITEA.....	4
3.4 GOMENDIOAK EMATEA, PRAKTIKA ZIENTIFIKO ZUZENEI BURUZKO GIDA EGITEA ETA PRESTAKUNTZA JARDUERAK ANTOLATZEA.....	4
3.5 LPA eta URTEKO MEMORIA EGITEA.....	4
3.6 KANPOKO HARREMANAK	4
3.7 BESTE BATZUK	5
4 GIEBri LAGUNTZA EMATEKO BALIABIDE TEKNIKOAK ETA GIZA BALIABIDEAK	5
Egoki iritziz gero, GIEBk aholku eska diezaietxe UPV/EHUtik kanpoko adituei edo erakundeei.	5
5 GIEBko KIDEAK.....	5
5.1 OSAERA.....	5
5.2 BATZORDEKO KIDEAK AUKERATZEA ETA BERRITZEA.....	5
5.3 BATZORDEBURUA AUKERATZEA.....	6
6 BATZORDEBURUA, BATZORDEKO KIDEAK ETA IDAZKARIA.....	6
6.1 BATZORDEKIDEEN EGINKIZUNAK	7
6.2 BATZORDEBURUAREN EGINKIZUNAK	7
6.3 IDAZKARIAREN EGINKIZUNAK.....	7
7 INPARTZIALTASUNA, INDEPENDENTZIA, INTERES GATAZKA ETA KIDEAK ERREFUSATZEA.....	8
GIEBko kideek inpartzialtasun eta independentzia osoz betetzen dute beren jarduna.	8
8 KONFIDENTZIALTASUN BETEBEHARRA	9
GIEBko kideren batek ez badu betetzen konfidentzialtasun betebeharra, kargutik kenduko da.	9
9 LANERAKO METODOLOGIA	9
9.1 GIEBren BILERAK.....	9
9.1.1 Ohiko bilerak	9
9.1.2 Ezohiko bilerak.....	9
9.1.3 Egutegia	10
9.1.4 Bilerarako deia eta aztergaien zerrenda.....	10
9.1.5 Gaiaren inguruko eztabaida eta erabakiak	10
9.1.6 Bilerako akta.....	10
9.2 EBALUAZIOA.....	11
9.2.1 Ebaluaziorako eskaria, memoria, agiriak eta epeak.....	11
9.2.2 Ebaluazio prozesua.....	11
9.3 IRIZPENA.....	12
9.3.1 GIEBren irizpen motak	12
9.3.2 GIEBren irizpenaren kontrako alegazioak aurkezteko bidea	13
9.3.3 Berrestea ikerketako beste etika batzorde baten aldeko txostena edo irizpena	13
9.3.4 Ebaluatutako jardueran aldaketa nabarmenak	13
9.4 JARRAIPENA.....	13
9.4.1 Jarraipenerako bilera sei hilabeterik behin.....	13
9.4.2 Jardueraren urteko laburpena.....	14
9.4.3 Proiektuaren azken txostena	14
9.5 LAN TALDEAK	14
9.6 URTEKO MEMORIA	14
10 LPAn ALDAKETAK EGITEA.....	15

1 DEFINIZIOA

Gizakiekin egindako Ikerketetarako Etika Batzordea (GIEB) kide anitzeko organoa da, Ikerketa eta Irakaskuntzako Etika Batzordearen (IEEB) egituran txertatua, eta indarreko legediari jarraituz garatua (barne hartuta: Ikerketa Biomedikoei buruzko 14/2007 Legea eta biobanku eta gizakietatik lortutako lagin biologikoen trataerari buruzko 1716/2012 ED) eta UPV/EHUn akreditatua dago UPV/EHUko ikerketarako eta irakaskuntzarako etika batzordeei buruzko araudiaren bidez (2014/02/17ko EHAA).

2 HELBURU OROKORRAK

GIEBren helburu nagusiak dira:

- UPV/EHUn egiten den ikerketaren eta irakaskuntza jardueraren kalitatea hobetzea.
- Ikerketan eta irakaskuntza jardueran gizakiek parte hartzen dutenean, gizakietatik lortutako lagin biologikoak erabiltzen direnean edo izaera pertsonaleko datuak erabiltzen direnean, ondoko jarrerak sustatzea: praktika zientifiko zuzenak (PZZ), zuzentasun zientifikoa, gaitasuna, justizia, elkartasuna, ahulenen babesa, tratu duina, autonomia pertsonala, pribatutasuna, konfidentzialtasuna, kalteetarako aseguruia eta giza eskubideen babesa.
- Europako, Estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko legedia bete egiten dela zaintzea: Pazienteen autonomiari buruzko 41/2002 Legea, Ikerketa Biomedikoari buruzko 14/2007 Legea, 1716/2012 ED, Izaera pertsonaleko datuen babesari buruzko 15/1999 Legea, eta horri lotuta 1720/2007 ED eta abar. Era berean, UPV/EHUren Estatuetan eta UPV/EHUren beraren arauetan ikerketari buruz eta irakaskuntzako jarduerari buruz zehaztutakoa.
- Bermatzea ikerketa horietan eta irakaskuntza jardunean metodologiako, etikako eta lege arloko zehaztasunak bete egiten direla.
- Gizakiekin, giza jatorriko lagin biologikoekin eta izaera pertsonaleko datuekin egiten diren ikerketa eta irakaskuntza jardueretan praktika zientifiko zuzenen, balioen eta araudiaren arloko prestakuntza eta eztabaida sustatzea.

3 EGINKIZUNAK

3.1 IKERKETA ETA IRAKASKUNTZA JARDUERAK EBALUATZEA

GIEB kide anitzeko organo bat da, eta UPV/EHUn eginiko ikerketa eta irakaskuntza jardueren alderdi etikoak, metodologikoak eta juridikoak ebaluatzen ditu oinarri hartuta zuzentasuna, objektibotasuna, errespetua eta eraginkortasuna. Ebaluazioa egiteko, batzordeak eskaria hartu behar du eta ikerketa edo irakaskuntza jarduerak ondoko ezaugarrietako bat izan behar du:

- Jarduera gizakiekin egitea.
- Gizakietatik lortutako lagin biologikoak erabiltzea.
- Izaera pertsonaleko datuak erabiltzea.

GIEBren jarduera eremutik kanpo geratzen dira botikekin eta osasun produktuekin egindako saiakuntza klinikoak, eta gizakiengan egindako edozein jatorriko organo, ehun eta zelulen inplanteak.

Osasun produktuekin eginiko ikerketen kasuan, aholku eskatu ahal izango zaio erakunde

eskudunari jakiteko zein batzorde den egoki jarduera ebaluatzeko kontuan izanda saiakera klinikoak edo ikerketa klinikoaren ezaugarriak.

3.2 EBALUAZIOAREN IRIZPENA EMATEA

GIEBren ardura da ebaluazioa egin ondoren irizpena ematea.

GIEBren irizpena aldekoa baldin bada, bai eta egoki denean beste batzorde batzuen ere, IIEBk ALDEKO TXOSTENA egin ahal izango du. Txosten hori nahitaezkoa da GIEBra ebaluatzeko aurkeztu den ikerketa edo irakaskuntza jarduera egiteko, eta egiten hasi orduko izan behar da eskuratuta.

IIEBren ALDEKO TXOSTENAK balio du egiaztatzeko hala eskatzen duten agintariei, erakundeei, argitaletxeei eta abarrei ebaluatutako ikerketa edo irakaskuntza jarduera irizpide metodologiko, etiko eta juridikoei jarraituz egingo dela.

GIEBren eginkizun hori gorabehera, unibertsitateko Lege Zerbitzuak txostena egin beharko du araudi orokorrei edo unibertsitatekoei jarraituz txosten hori beharrezkoa denean, eta organo bakoitzak bere eskumenen babesean arituko da. GIEBk ebaluazioa egiteak ez dio eragozten, era berean, ikerketa eta irakaskuntza ebaluazioa UPV/EHUtik kanpoko beste batzorde batek egiteari, beti ere, batzorde hori behar bezala akreditatuta badago.

3.3 IKERKETA ETA IRAKASKUNTZA JARDUEREN JARRAIPENA EGITEA

GIEBren ardura da ikerketa eta irakaskuntza jardueren jarraipena egitea, oinarri hartuta indarreko legedia eta ebaluazioko aldeko txostenean jasotakoa.

3.4 GOMENDIOAK EMATEA, PRAKTIKA ZIENTIFIKO ZUZENEI BURUZKO GIDA EGITEA ETA PRESTAKUNTZA JARDUERAK ANTOLATZEA.

GIEBk, irakasle eta ikertzaileen lana errazte aldera, parte hartzen du gomendioak emateko zereginean, PZZ gidak osatzeko lanean eta ikerketa eta irakaskuntza jardueretan zaindu beharreko etikaren arloko prestakuntzan, jardun hori gizakiekin, giza laginekin edo datu pertsonalekin egiten denean.

3.5 LPA ETA URTEKO MEMORIA EGITEA.

GIEBk IIEBri aurkeztu behar dio urteko memoria eta Lanerako Prozedura Arautua IIEBk onar dezan.

3.6 KANPOKO HARREMANAK.

GIEBk bere helburu eta eginkizunekin bat datozen batzorde, elkarte, erakundeekin eta antzekoekin harremanak ezartzen ditu eta horiekin elkarlanean aritu ahal izango da.

3.7 BESTE BATZUK

Indarreko araudiari jarraituz eta Ikerketa Biomedikoari buruzko legedia garatzeko arauetan jasotako beste eginkizun batzuk, bai eta IIEBk eta UPV/EHUko zuzendaritza taldeak emandako beste batzuk.

4 GIEBRI LAGUNTZA EMATEKO BALIABIDE TEKNIKOAK ETA GIZA BALIABIDEAK

Arlo honetan eskumena daukan errekoreordeari dagokio GIEBri bere eginkizunak betetzeko behar dituen giza baliabide eta baliabide teknikoak ematea bere errektoreordetzako baliabideak erabilita.

Egoki iritziz gero, GIEBk aholku eska diezaieke UPV/EHUtik kanpoko adituei edo erakundeei.

5 GIEBko KIDEAK

5.1 OSAERA.

GIEBk diziplina arteko osaera izateko betebeharra izan behar du, errazteko batzordearen analisirako ikuspegi anitza eta gaien ulermena eta erabakiak errazteko; era berean, generoen arteko parekotasuna zaindu beharko du.

GIEBk gutxien dela zortzi kide izango ditu:

- Irakasle eta ikertzaileen taldeko lau kide; esperientzia egiaztatua izan behar dute gizakiekin, lagin biologikoeekin edo izaera pertsonaleko datuekin egiten diren ikerketa eta irakaskuntza jardueretan.
- Legelari bat.
- Irakasle eta ikertzaileen taldeko kide bat, ikerketaren metodologian prestakuntza daukana.
- Datuen babesaren arloko ezagutza daukan pertsona bat.
- Batzordeari laguntza teknikoa emango dion pertsona bat; batzordeko idazkaria izango da, eta ahotsa izango duen arren ez du botorik izango.

Ahalegina egingo da GIEBko kideen artean irakasle eta ikertzaileen taldeko kide bat izateko batzordearen eskumeneko ikerketa arlokoarekin zerikusirik ez daukana.

GIEBko kide izatea borondatezkoa da, ez da ordainsaririk eskuratuko eta kideak ez dira ezelango talde, erakunde, ikastegi edo sailen ordezkari izango.

Kide bakoitzaren curriculum vitae, eredu arautuan, GIEBren idazkaritzan egongo da eskuragarri, eta kargua, kategoria profesionala, jakintza arloa eta aukeratua izatearen oinarri izan den profila GIEBren web gunean argitaratuko da.

5.2 BATZORDEKO KIDEAK AUKERATZEA ETA BERRITZEA

Kide berriak GIEBk berak proposatuko ditu kide izateko nahia adierazi duten UPV/EHUko kideen artetik aukeratuta.

Deialdia bi urterik behin egingo da UPV/EHUko iragarki oholen bidez, eta unibertsitateko edozein kidek har dezake parte. GIEBko kideren bat kargutik kendu edo kideren batek kargua utziz gero, premiazko deialdia egingo da eginkizunak betetzen jarraitu ahal izateko.

GIEBko kide izateko eskaria telefono bidez edo posta elektronikoz egin behar zaio idazkariari, eta idazkariak hartuko du eskari egileak aurkeztutako informazio.

Eskariak aurkezteko epea behin bukatuta, GIEBk ezohiko bilera egingo du kide berria aukeratzeko, eta proposamena Ikerketaren arloko errektoreordeari aurkeztuko dio.

Proposamenerako ondoak hartuko dira kontuan:

- GIEBren premiak kontuan hartuta osaera eta eginkizunak
- Kide izateko aurkeztu den pertsonak bere curriculumean adierazi dituen gaitasunak eta esperientzia profesionala, batzordean izango dituen eginkizunekin zerikusia dutenak.
- Gizakiekin, giza lagin biologikoekin edo izaera pertsonalekin egiten diren ikerketa eta irakaskuntza jardueren ebaluazioa egiteko erakusten duen interesa, eta batzordeko eginkizunei eskainiko dien denbora. Interesa eta eginkizunari eskainiko zaion denbora batzorderi zuzendutako idatzi baten bidez azaldu beharko ditu kide izan nahi duen pertsonak.

GIEBko kideak errektoreak izendatuko ditu Ikerketaren arloko errektoreordearen proposamenari jarraituz, eta horren berri emango dio Gobernu Kontseiluari. Izendapena lau urterako izango da eta beste lau urterako berritu ahal izango da. Administrazio eta zerbitzuetako langileen taldeko kideek ez dute epe muga hori izango.

GIEBko kideen zati bat bi urterik behin berrituko da, eta gehienez ere kideen heren bat aldatu ahal izango da, hartara eginkizunak ez direla etengo bermatu ahal izateko.

5.3.- KIDE IZATEARI UZTEA Ondokoak izango dira GIEBko kide izateari uzteko arrazoiak:

- Kideak berak kide izateari uzteko eskaria egitea GIEBko idazkariari aurkeztutako idatzi bidez.
- 8 urteko epea bete izana.
- Eginkizunak ez betetzea arrazoirik azaldu gabe urtean ohiko lau bileretara ez joateagatik.
- Arau juridikoak edo irizpide etikoak ez betetzea, barne hartuta konfidentzialtasuna ez betetzea edo interes gatazkarik egonez gero horren berri ez ematea.

Kargu uztea errektorearen erabaki bidez egingo da.

5.3 BATZORDEBURUA AUKERATZEA

Bi urterik behin GIEBa aldatzean, batzordeburua aldatu edo berretsi egin behar da. Batzorde burua batzordeko kideek aukeratzeko duten beren artetik, eta lehenengo txandan botoen gehiengoa (botoen erdia gehi bat) lortzen duena izango da. Berdinketarik egonez gero, bigarren txanda egingo da boto gehien lortu dituzten bi kideen artean aukeratzeko, eta boto gehien lortzen duena izango da batzordeko burua. Kargua onartzean, GIEBko idazkariak horren berri emango dio errektoreordeari eta izendapena errektoreak egingo du. Izendapena bi urterako izango da eta berritu ahal izango da gehienez ere zortzi urte bete arte.

6 BATZORDEBURUA, BATZORDEKO KIDEAK ETA IDAZKARIA

GIEBk batzorde burua izango du, eta gutxien dela zazpi batzordekide. GIEBko idazkari lanak UPV/EHUko IIEBko ikerketako etika teknikariak egingo ditu.

6.1 BATZORDEKIDEEN EGINKIZUNAK

Ondokoak dira batzordeko kide guztiek, batzordeburuak barne, izango dituen eginkizunak:

- **Ikerketako eta irakaskuntza jaruduerako proiektuak ebaluatzea, batzordeak berak adierazitako txandetan eta eran.**
- **Ikerketa eta irakaskuntza jardunerako etikaren arloko gomendioak ematea, PZZko gidak egitea eta prestakuntza ematea.**
- **GIEBren bileretara joatea, parte hartze aktiboa izatea eta botoa ematea.**
- **Batzordeburuari ezohiko bileretarako deiak egitea proposatzea.**
- **IIEBra aurkeztu aurretik, LPA eta urteko memoria onartzea.**
- **GIEBren helburu eta eginkizunekin bat datozen batzorde, elkarte, erakunde eta antzekoekin harremanak ezartzea eta horiekin elkarlanean aritzea.**
- **Indarreko araudiari jarraituz eta Ikerketa Biomedikoari buruzko legedia garatzeko arauetan jasota beste eginkizun batzuk, bai eta IIEBk eta UPV/EHUko zuzendaritza taldeak emandako beste batzuk.**

6.2 BATZORDEBURUAREN EGINKIZUNAK

- **GIEBren ordezkari izatea.**
- **IIEBko kide izatea GIEBren ordezkari legez, eta IIEBren bileretara joatea batzorde horretan dituen eginkizunak betez.**
- **Ohiko bileretako egutegia betetzea GIEBko gehiengoak behin onartuta.**
- **Bileretan moderatzaile lana egitea, zuhurtziaz arituta eta erabakiak eta akordioak sustatuz.**
- **Bozketarik egin behar izanez gero, bozketa antolatzea, eta berdinketa dagoenean, kalitate botoa izango du.**
- **Ebaluazioa egiteko lagungarri izango diren aditu eta ikertzaileei deia egitea GIEBko idazkariaren bitartez.**
- **Bilerako akta sinatzea GIEBko batzarrak onartu ondoren.**
- **UPV/EHUko IIEBk eta GIEBk hartutako erabakiak bete egiten direla zaintzea.**
- **GIEBren urteko memoria egiteko beharreko den informazioa biltzea eta antolatzea.**

6.3 IDAZKARIAREN EGINKIZUNAK

- **GIEBra ebaluatzeko bidaltzen diren proiektu eta irakaskuntza jarduerak hartzea, erregistratzea eta espediente irekitzea.**
- **Ohiko eta ezohiko bileretarako deia egitea aztergaien zerrenda zehaztuta, eta bilerarako gela hartzea.**

- Bileren egutegia koordinatzea eta argitaratzea.
- Dokumentazioa GIEBko kide guztiei bidaltzea, eta proiektua aztertzeko lanean parte hartuko duten parekoak aukeratzea.
- Ikertzaileak edo irakasle arduradunak bilerara joateko eskaria egiten duenean, horretako beharrezko diren izapideak egitea, edo GIEBko kideek bilerara adituren bat etortzeko edo haren iritzia izateko eskaria egiten dutenean.
- Bileretan landutako biltzea, akta egitea erabakiak jasota eta egoki diren dokumentuak erantsita ("aktari erantsitako dokumentuak" deitutakoak). Eginkizun horiek guztiak batzordeburuak gainbegiratu ditu.
- Ebaluazioa eskatu duen pertsonari bere proiektuari edo irakaskuntza jardunari buruzko erabakia bidaltzea horri lotutako dokumentu guztiekin.
- GIEBren aldeko irizpena eta IIEBren aldeko txostena betetzea, egoki izanez gero.
- Interesen gatazka dagoela adierazten denean, kasu horietarako dagoen prozedura ezartzea.
- Kargu uzteen eta izendapenen berri hartzea eta jakinarazpenak egitea.
- GIEBren bileretako akten kopia ematea akta eskatzeko eskubidea duen norbaitek eskatuz gero.
- Komunitate zientifikotik GIEBren eskumeneko gaii buruzko egiten dituzten galdera eta zalantzak argitzea eta horien inguruko laguntza ematea.

7 INPARTZIALTASUNA, INDEPENDENTZIA, INTERES GATAZKA ETA KIDEAK ERREFUSATZEA

GIEBko kideek inpartzialtasun eta independentzia osoz betetzen dute beren jarduna.

Kideren batek ikusiz gero interes gatazkagatik arazoa izan dezakeela inpartzialtasunez eta independentziaz aritzeko, horren berri eman beharko dio idazkariari, eta kasuan kasuko ikerketa edo irakaskuntza jardura ebaluatzeko prozesutik kanpo geratuko da.

Ondokoetan egon daiteke interes gatazka:

- Gaiari interes pertsonala izatea edo gai horretan eragina izan dezakeen beste bat ebatzi behar denean.
- Interesatuetakoren batekin laugarren mailara arteko ahaidetasuna edo odol kidetasuna izatea edo bigarren mailara arteko ezkontza kidetasuna.
- Ageriko adiskidetasuna edo etsaitasuna izatea.
- Proiektuan parte hartzen dutenekin zerbitzu harremana izatea edo azken urteetan zerbitzuak eman izatea kide horiei.
- Ebaluatu beharreko ikerketa edo irakaskuntza jarduerarekin zuzeneko lotura izatea.

GIEBren bileretako aktan jasota ageriko da interes gatazka daukan kide horrek ez duela hartu parte prozesu osoan: ez du dokumentaziorik hartuko, ebaluazioa egitean ez da bertan egongo eta ez du parterik hartuko irizpena hartzeko eztabaidan.

Ikertzaileek edo irakasleek eskaria egin dezakete GIEBko kideren bat errefusatzeko, ebaluaziorako eskariarekin batera idatzi bat aurkeztuta. Idatzia idazkariari zuzenduko zaio eta GIEBko kidea interes gatazkagatik errefusatzeko arrazoiak azalduko beharko dituzte. Idazkariak ebaluazio prozesutik kanpo utziko du GIEBko kide hori, eta bilerako aktan jasoko du gertaera.

8 KONFIDENTZIALTASUN BETEBEHARRA

GIEBn botoa eta ahotsa daukaten kide guztiek, batzordean behin edo behin parte hartzen dutenek edo ahotsa izan arren botorik ez daukatenek, eta batzordeak egiten duen lanaren berri daukaten guztiek, eskuratu duten informazio guztia isilpean gordeko dutela bermatu beharko dute, eta isilpean gorde beharko dituzte, era berean, ebaluatzaileak nortzuk izan diren eta eztabaiden nondik norakoak.

GIEBko kideren batek ez badu betetzen konfidentzialtasun betebeharra, kargutik kenduko da.

Konfidentzialtasun betebeharra hautsi duena ez bada GIEBko kide, pertsona hori etorkizunean ezin izango da izan GIEBko kide eta ezin izango du bileretan parte hartu aditu legez, eta hala dagozkion legezko ondorioak izango ditu.

9 LANERAKO METODOLOGIA

9.1 GIEBREN BILERAK

GIEBk gutxien dela bilera bat egingo du hilean, abuztuan edo behar bezala arrazoitutako egoeretan izan ezik.

Batzordea balioz eratu ahal izateko, bertan egon behar dira batzordeburua, idazkaria edo horien eginkizunak betetzen ari diren ordezkioak, eta kideen erdiak eta bat gehiago.

GIEBko kideek ezin dute beren eginkizuna eskuordetu eta ezin dute behin-behineko ordezkorik izan; salbuespena dira horretan batzordeburua eta idazkaria akta egiteko zereginean.

GIEBren bileretan parte hartu ahal izango dute, ahotsarekin baina botorik gabe, batzordearen ustez egoki diren adituek edo ebaluatzen ari diren ikertzaileek, betiere, gonbidapena hartu badute edo bilerara joateko eskaria egin badute.

GIEBko kideren batek interes gatazkarik badauka, ezin izango du parterik hartu batzordearen eginkizunetan eta bileratik irten beharko du ebaluazioaren gaia lantzerantz doazenean. Hori guztia aktan jaso beharko da.

9.1.1 Ohiko bilerak

Ohiko bilerak dira egutegian jasotako hileroko bilerak eta ezohikoak izan gabe epearen barruan deitutako gainontzekoak.

Ohiko bilerarako deia gutxien dela bilera baino 10 egun lehenago egin behar da posta elektronikoz, eta deiarekin batera bidali behar da aztergaien zerrenda, aurreko bilerako akta eta aktaren eranskinak eta ebaluatuko diren ikerketa eta irakaskuntza jardueren zerrenda.

9.1.2 Ezohiko bilerak

Ezohiko bilerak dira premiaz deitzen direnak deialdia egiteko zehaztutako epeak bete gabe. GIEBko edozein kideren eskariari jarraituz egin daiteke ezohiko bilerarako deia, gaia premiazkoa denean edo egin beharrekoen ondorioz premiaz egin behar denean bilera. Bilerarako deia egin eta 48 orduko epearen barruan egingo da. GIEBko idazkariak egingo du bilerarako deia

batzordeburuari horren berri eman ondoren, eta deia egiteko biderik azkarrena eta egokiena erabiliko du.

Bilera balioz eratzeko, kideen erdiak gehi bat bertaratu behar dira, eta bileraren hasieran ezohiko bileraren premia berretsi beharko dute. Berretsi ezean, bilera bertan behera geratuko da.

Ezohiko bileran deialdia eragin zuen gaia baino ezin izango da aztertu.

Gai hori hurrengo ohiko bilerako aztergaien zerrendan jasoko da, GIEBko kide guztiek izan dezaten horren berri.

9.1.3 Egutegia

GIEBko idazkariak ikasturterako bilera egutegia egingo du kideekin koordinatu ondoren, eta kideek gehiengo soilaren bidez onartu beharko dute. Bileren egutegia UPV/EHUko web gunean argitaratuko da.

9.1.4 Bilerarako deia eta aztergaien zerrenda

Ohiko bilerarako deia posta elektronikoz egingo da eta aztergaien zerrenda izango du erantsita, bai eta bilerarako beharrezko diren agiri guztiak ere. Aztergaien zerrendan jasota ageriko da bilerako lekua, eguna eta ordua, eta bilerara deitutakoen zerrenda.

GIEBko bileren aztergaien zerrenda idazkariak osatuko du, eta ondokoak jasoko ditu:

- Aurreko bilerako akta irakurri eta onestea.
- Batzordeburuaren txostena
- Jasotako eskariei jarraituz, ikerketa edo irakaskuntza jarduerak aztertzea, ebaluatzea eta berriz ebaluatzea.
- Galde-eskeak

Ez da erabakirik hartuko eta ez da bozketarik egingo aztertutako gaia gai zerrendan ez badago, ez bada gehiengo soilaren aldeko botoekin gaia premiazkoa dela erabaki dela.

9.1.5 Gaiaren inguruko eztabaida eta erabakiak

Gaiak eztabaidatu ondoren hartuko dira erabakiak adostasunera helduta. Bozketarik egin behar izanez gero, eginkizun bakoitzerako zehaztutako gehiengoa hartu beharko da kontuan. Berdinketarik gonez gero, batzordeburuak kalitate botoa izango du.

9.1.6 Bilerako akta

Ohiko zein ezohiko bileren akta egingo da. Akta bileran onartu ondoren, GIEBko buruak eta idazkariak sinatuko dute, eta idazkariaren ardura izango da aktak, paperean eta formatu elektronikoa, artxibatzea eta zaintzea.

GIEBren bilerako aktan, gutxien dela ondokoak jasoko dira:

- Bertaratuen eta bertaratu ez direnen zerrenda
- Bilera non egin den, eguna, hasierako ordua, amaierako ordua eta iraupena,
- Aztertutako gaiak

- Interes gatazkagatik bertaratu ez direnak, eta gatazka eragin duen gaiak UPV/EHUn IIEBn daukan erregistro zenbakia.
- Aktak erantsita dituen dokumentuak, bertan jasota ebaluazioren oharrak eta irizpenak, zehaztuta UPV/EHuko IIEBko erregistroko zenbakia eta ikerketa edo irakaskuntza jardueraren izenburua.

Legezko interes egiaztatua dutenek eskaria egin diezaiokeite idazkariari bileran hartutako erabakien ziurtagiria jasotzeko.

9.2 EBALUAZIOA

9.2.1 Ebaluaziorako eskaria, memoria, agiriak eta epeak

UPV/EHuko kideek ebaluaziorako eskaria egin diezaiokeite GIEBri, legez ebaluaziorako betebeharra izan zein izan ez, betiere, ikerketa edo irakaskuntzako jarduera gizakiekin, lagin biologikoekin edo izaera pertsonaleko datuekin egiten badute

Ebaluaziorako eskaria edozein datatan egin daiteke UPV/EHuko Erregistro Orokorren bidez eta eskaria IIEBri aurkeztu behar zaio.

Ebaluaziorako aurkezten diren ikerketa edo irakaskuntza jarduerak web bidezko aplikazioaren bidez aurkeztu behar dira. Aplikazioan memoria osatu behar da eta dokumentazioa erantsi (biak bete behar dira ezinbestean); aplikazioak erregistro zenbakia esleituko dio eta ikertzaile/irakasle arduradunari jakinaraziko dio; era berean, jakinaraziko dio GIEB zein bileretan aztertuko duen gaia.

GIEBk gehienez ere bi hilabete ditu ebaluazioa egiteko eta horren emaitza bidaltzeko (erregistro zenbakia jakinarazi den egunetik kontatzen hasita).

UPV/EHUn gizakiekin, giza laginekin edo horiei buruzko datuekin egiten diren gradu amaierako lanak kasuan kasuko errektoreordetzek onartutako irizpideei jarraituz ebaluatuko dira.

9.2.2 Ebaluazio prozesua

Ikerketa edo irakaskuntzako jarduera GIEBko bi kidek ebaluatuko dute beren izenak isilpean gordeta, eta, ondoren, GIEBko kide guztiek, horretarako deitutako bileran.

GIEBko idazkariak proiektu bakoitzerako ebaluatzaile parekoak izendatuko ditu hileko lehenengo astean, kontuan hartuta ebaluatzaileen arteko pluraltasuna eta saihestuz ez dadila egon jakintza arlo bereko kide bat baino gehiago.

GIEBko idazkariak kide guztiei igorriko die dokumentazio osoa (interes gatazka dutenei izan ezik), eta ikerketa edo irakaskuntza jarduera bakoitza ebaluatzeko izendatutako parekoak nortzuk diren jakinaraziko die.

Ebaluatzaileek memoriaren eskemari jarraituko diote:

1. Proiektuak gizarterako daukan balioa eta arrazoiak
2. Ikertzaileen prestakuntza
3. Balio metodologiko eta zientifikoa.
4. Etikaren arloko berariazko gaiak: arriskua-onura, kalteetarako aseguruia, parte hartzaileak aukeratzeko prozesua, partaide ahulen babesa, informazio, adostasuna, pribatutasuna eta

konfidentzialtasuna eta abar.

5. Bete beharreko agiriak: baimen informatua, fitxategien babesari buruzko dokumentua, baimena eta indarreko legedian jasotako betebeharrak.

Pareko ebaluatzaileek egindako ebaluazioa GIEBri aurkeztuko zaio, hark azertu dezan.

Erabakiak beti adostasunez hartu behar dira, zuhurtziaz eta arduratsu azertu ondoren gaia.

Adostasunik egon ezean, bozketa egingo da eta gehiengo soilak beharko da erabakia hartzeko. Batzordeburuaren kalitate botoa berdinketa dagoenean baino ez da erabiliko.

GIEBko kideek ebaluaziorako adituen laguntza eska diezaiokete idazkariari.

GIEBren bileraren ondoren, idazkariak, 8 egun balioduneko epean, irizpena idatziko du eta kide guztiei igorriko die posta elektronikoz. Kideek 48 orduko epea izango dute zuzenketak egiteko eta berresteko.

Ebaluaziorako eskaria aurkeztu duenak, ikertzaile edo irakasle arduradunak, eskubidea dauka GIEBri bere iritzia azaltzeko. Horretarako, hitzordua eskatu beharko dio GIEBri idazkariaren bidez, eta idazkariak bilerako aztergaien zerrendan jasoko du ahalik eta eperik laburrean.

9.3 IRIZPENA

9.3.1 GIEBren irizpen motak

Ebaluazioaren ondorioekin, GIEBk lau irizpen mota desberdin egin ditzake irakasle edo ikertzailearen ebaluazioen berri emateko:

- **ALDEKO IRIZPENA:** jarduera zuzen zehaztu denean ebaluatzen diren parametroei jarraituz. Ez badago beste batzorde batzuen parte hartzerik, irizpen mota honek IIEBren ALDEKO TXOSTENA ekarriko du.
- **ALDEKO IRIZPEN BALDINTZATUA, GUTXIENEN ALDAKETA BATZUK EGIN BEHAR DIRENEAN:** forma akatsak daudenean egingo da edo dokumentazio gehigarria falta denean edo erantsi behar denean. Irizpen hori "aldeko irizpen" bihurtuko da ikertzaileak edo irakasleak GIEBk eskatutako aurkezten duenean. Egin beharreko aldaketen ezaugarriak kontuan hartuta, aldeko irizpena GIEBko idazkariak edo ebaluatzaile parekideak emango dute. Akatsak zuzentzeko 6 hilabeteko epea izango du ikertzaileak edo irakasleak, eta, horrela egin ezean, ITXI EGINGO DA ESPEDIENTEA izapideak ez betetzeagatik.
- **IRIZPENA ZUZENKETEN ZAIN:** ikerketa edo irakaskuntza jarduera proiektuan datuak falta direnean edo proiektuak akatsak dituzten ematen da, datuok edo akatsok ezinbesteko informazioa dutenean proiektua behar bezala ebaluatzeko. Irizpenari agiri bat erantsen zaio azaltzeko zergatik eman den irizpen hori eta GIEBko kideen usten egoki diren oharak eta zehaztapenak jasoko dira. Ikertzaileak edo irakasleak 45 eguneko epea izango du batzordeak eskatutakoari jarraituz proiektua zuzentzeko, eta, horrela eginez gero, batzordeak berriz EBALUATUKO du. GIEBk berriz aztertuko du proiektua zuzenketak jaso eta hurrengo bileran.
45 eguneko epea behin igarota ez bada ezer jaso, GIEBko idazkariak idatzia bidaliko dio ikertzaileari edo irakasleari jakinarazteko ITXI EGINGO DELA ESPEDIENTEA.
- **AURKAKO IRIZPENA:** Azaldutako bost ataletako batean edo gehiagotan huts nabarmenak daudenean emango da, eta huts horiek ezin direnean zuzendu aldaketa txiki batzuk eginda edo ezin direnean "zuzenketen zain" atalean sailkatu.

GIEBren irizpen guztiak idatziz egingo dira, eta arrazoituta egongo dira. Irizpena GIEBren bilerako aktari erantsiko zaio eta idazkariak posta elektronikoz igorriko dio ebaluaziorako eskaria egin duenari 15 eguneko epean, GIEBren bilerako egunetik kontatzen hasita.

GIEBren irizpena aldekoa denean, UPV/EHUko IIEBk ALDEKO TXOSTENA egingo du. Agiri horren kopia bat kautotu egingo da, eta jatorrizkoa GIEBko idazkariaren zaintzapean dagoen espedienteari gehituko zaio. Kopia kautotua eskaria egin duen ikertzaile edo irakasleari bidaliko zaio barne posta bidez, eta agiri hori da aurkeztu behar duena finantza erakundeetan, argitaletxeetan, irakaskuntzako erakundeetan eta abarretan, eskaria egiten diotenean.

Ebaluatzeko aurkeztu den ikerketa edo irakaskuntza jarduera ezin izango da martxan jarri harik eta UPV/EHUko IIEBren ALDEKO TXOSTENA izan arte.

9.3.2 GIEBren irizpenaren kontrako alegazioak aurkezteko bidea

Irizpena hartzen duenak eskubidea dauka entzunaldia eskatu eta GIEBren bileran hitz egiteko. Eskaria posta elektronikoz egin behar dio GIEBko idazkariari. Idazkariak ahalik eta arinen sartuko du bilera bateko aztergaien zerrendan.

9.3.3 Berrestea ikerketako beste etika batzorde baten aldeko txostena edo irizpena

Irizpen mota hau emango da eskari egileak ikerketako beste etika batzorde baten irizpena edo aldeko txostena aurkezten duenean. Beste txostena berresteko oinarri da beste batzorde akreditatuaren lana errespetatzea, haren lanarenganako konfiantza eta arrazoizko balioak. Berrespena eskatzeko ikertzaile edo irakasleak ondokoak egin behar ditu:

- a) GIEBri ebaluazio eskaria egitean, ikerketako beste etika batzorde baten aldeko txostena/irizpena berresteko eskaria ere egitea.
- b) Txosten/irizpen hori eskariari erantsi.
- c) Batzorde horren agiri bat erantsi, jasota dituen: aldeko txostena jaso duen proiektuaren izenburua, ikertzaile zerrenda eta ikerketa non egingo den.

Horrelakoren bat aurkeztu ezean, GIEBk ohiko prozedurari jarraituz ebaluatuko du proiektua.

9.3.4 Ebaluatutako jardueran aldaketa nabarmenak

IIEBk ALDEKO TXOSTENA eman ondoren ikerketa edo irakaskuntzako jardueran aldaketa nabarmenik eginez gero, ikertzen jarraitu ahal izateko berriz egin beharko zaio ebaluazio eskaria GIEBri, batzorde horren aldeko irizpena eta IIEBren ALDEKO TXOSTENA eskuratzeko.

9.4 JARRAIPENA

GIEBk aldeko txostena lortu duten ikerketa eta irakaskuntza jardueren jarraipena egiteko betebeharra dauka. Hiru jarraipen mota egin ahal izango ditu:

9.4.1 Jarraipenerako bilera sei hilabeterik behin

Sei hilabeterik behin, deia egingo zaie ikertzaile eta irakasleei nahi izanez gero GIEBren bilerara

joateko proiektuaren martxa azaltzen.

9.4.2 Jardueraren urteko laburpena

Urtean behin eskaria egingo zaio ikertzaile edo irakasleari jardueraren laburpena aurkezteko. Laburpenean azaldu beharko da jarduera aldaketa nabarmenik gabe egiten ari diren edo aldaketa garrantzitsuren bat egin behar izan duten. Aldaketa nabarmena denean, nondik norakoak azaldu beharko dira GIEBk balorazioa egin dezan.

9.4.3 Proiektuaren azken txostena

Agiri honetan, ikertzaileak edo irakasleak egindako lanaren laburpena azaldu beharko du, eta erantsita izango ditu lan horren inguruan egindako argitalpenak.

9.5 LANTALDEAK

GIEBk, gehiengoren adostasunez, lan taldeak edo mintegiak era ditzake, GIEBko kide baten edo batzuen zuzendaritzapean; talde edo mintegi horien helburua batzordearen eginkizunak betetzeko laguntza ematea izango da, batez ere gomendioak emateko, PZZko gidak egiteko eta zabalkundeko eta irakaskuntzaren arloko lanak egiteko.

Lan taldeak berak ezarriko ditu bere funtzionamendu irizpideak, betiere, LPA honi jarraituz, eta GIEBren ohiko bileran taldeak egindako lanaren berri eman beharko da eta amaitzerakoan, txostena egin beharko da GIEBren bileran aurkeztu eta batzorde horrek onar dezan.

GIEBk lau baliabide ditu horretarako:

- a) web gunea: www.ehu/IIEB
- b) UPV/EHUko [IIEBren koaderno bilduma](#)
- c) Biltzarrak, jardunaldiak...
- d) Ikasgelako bertako prestakuntza eta onlinekoak; batzordeko kideek emango dituzte eta UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileek edo AZPkoek egindako eskariari jarraituz antolatuko dira.

9.6 URTEKO MEMORIA

GIEBk urteko memoria egingo du ondokoak bilduta:

- Ebaluaziorako eskariak
- Ebaluatutako jarduerak
- Emandako irizpenak
- GIEBren aldeko irizpenak
- IIEBren aldeko txostenak
- Proiektuen jarraipena egiteko egin diren jarduerak: urtean aurkeztu den laburpen kopurua, sei hilabeterik behin egindako bileretara bertaratuak eta proiektu amaierako txosten kopurua.

- Lan taldeak eta jarduerak: gomendioak, IIEB koadernoak eta prestakuntza.
- Bioef-Oehun hitzarmenak eta beste batzuk
- Ohiko eta ezohiko bilera kopurua
- Joandako urteko egutegia
- Bileretarako deiak eta aktak
- Batzordean egindako aldaketak: izendapenak eta kargu uzteak.
- Beste batzorde, zerbitzu eta abarrekin egindako bilerak.
- Ikerketa edo irakaskuntza jardueran partaide diren erakundeak.

Memoria GIEBk onartu behar du eta batzordeburuak eta idazkariak aurkeztuko dute batzordeak urte naturalean egingo duen lehen bileran.

10 LPAN ALDAKETAK EGITEA

Lanerako Prozedura Arautua (LPA) aldatu egin ahal izango da, ataletakoren bat batzordearen eginkizunetarako oztopo dela iritziz gero, eta, betiere, aldatu nahi dena LPAko 1. eta 2. artikuluan zehaztutako araudian jasota ez badago.

LPA batzordeburuaren eskariz egingo da edo GIEBren ezohiko bileran aztertu eta bi herenen gehiagoren bidez onartuta.